

Azken aldian ilargian zaudela diote zure lagunek

MAIALEN BELARRA ENETERREAGA

Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. kurtsoak I. saria

Doneztebeko Mendaur BHI

Neska zer duzu, zer gertatzen da,
zein da zure buruhaustea?
Ze arrazoik zabaldu dizu
ilargirako atea?
Kontzientziaren tartea
kontzientziaren artea
ezinezko da guk zenbatzea
errudun kantitatea
munduaren biletea
hobe hau ez izatea
irrealitate batera hurbildu
baita errealitatea.

Zergatik ez da inon ikusten
behar den berdintasuna?
Gosea hemen, gaitz maltzurak han
eta hor gerra txukuna
guztia dago iluna
behar dut argitasuna
noiz iritsiko ote da beti
itxoiten nagon eguna
nire ausardi jarduna
zera erakusten duna
gizartearen norantza dela
nire kezken erruduna.

Indarkeria mundu honetan
zergatik da hain nagusi?
Ezin al dira ate beltz hauek
behingoagatikan itxi?
Hau ez dutenak merezi
ezin ongi adierazi
zoriontasuna ta tristezia
ezin al dira bereizi?
Alai hazi, alai hezi
mundu hontatik ihesi
iluntasun hau ikusi ordez
hobe ilargian bizi!